



URRUZUNOTARRAK GEHITUZ 2018
Literatura-lehiaketan parte hartzeko oinarri-arauak

1.- 2017-2018 ikasturtean Bigarren Hezkuntzan diharduten eta hurrengo atalean zehazten diren mailetakoko ikasleek soilik hartu ahal izango dute parte lehiaketa honetan.

2.- Ikasle horien artean bi kategoria bereiziko dira: B gazteak (DBHko 3. eta 4. mailak) eta A gazteak (Batzilergoko 1. eta 2. mailak, edo Erdi Mailako Heziketa Zikloak).

3.- Literatura-lanek originalak izan behar dute, lehiaketa honetan izena emateko epea itxi arte bestelako literatura-saririk irabazi gabeak. Lanak euskaraz sortuak izango dira, bai poesiaz bai prosaz, betiere Euskaltzaindiak onartuta dauzkan ortografia eta gramatika arauak betez. Gaia librea izango da.

4.- Lanen neurriak hauek izango dira:

- Prosa:
- B kategoria: 4000-12000 karaktere, 1,5eko lerroartearekin (2 eta 6 orrialde bitartean, 12ko hizkiarekin).
 - A kategoria: 5000-15000 karaktere, 1,5eko lerroartearekin (3 eta 8 orrialde bitartean, 12ko hizkiarekin).
- Poesia:
- B kategoria: gutxienez 50 lerro (Olerki bat baino gehiagoz osa daitezke).
 - A kategoria: gutxienez 75 lerro (Olerki bat baino gehiagoz osa daitezke)

5.- Lana eskabide-orriarekin batera aurkeztuko da, pdf formatuan, ondoko helbide honetan: http://www.hezkuntza.net/w58MantenimientosWar/formularioswebJSP/w58modificarformulario.do?accion=KEY_PREVISUALIZAR&idFormulario=23504&idioma=eu

Lehen orrialdean lanaren izenburua, egilearen izengoitia, arloa eta kategoria jarriko dira soil-soilik, dena ere letra larriz. Egilearen izen-abizenak ez dira agertuko lehen orrialde horretan.

6.- Eskabidea egiteko epea **2018ko urtarrilaren 15etik otsailaren 28ra artekoa** da (biak barne).

7.- Datu pertsonalak Babesteko Lege Organikoak dioena betez, parte hartzaileak Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari baimena ematen dio eskabidean jasotako datuak bere informatika-fitxeroetan sar ditzan. Datuetara sartzeko, datuak aldatzeko eta deuseztatzeko eskubidea erabili nahi badu, Hezkuntza Sailburuordetzara jo dezake: Donostia kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz.

8.- Aurkezten diren lan guztietatik, hoge (20) lan onenak aukeratuko dira; hamar (10) kategoria bakoitzean (5 prosa-lan eta 5 poesia-lan). Aukeratutako lan horiek sarituak izango dira.

9.- Saritutako lanen egileek bost eguneko literatura-egonaldian parte hartzeko aukera izango dute. Literatura-tailerraz eta idaztearekin zerikusia duen beste hainbat ekintzaz osatuko da egonaldi hori. Laguntzaile izango dute, uneoro, euskal idazle bat.

10.- Hezkuntza Sailak liburu bat argitaratuko du saritutako lanekin, bilduma gisa, *Sagastiberri* sailean.

11.- Hezkuntzako sailburuordeak idazlanak aztertu eta sariak nori eman proposatzeko epaimahaia izendatuko du. Epaimahaia sortzean, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.5 artikuluan agindutakoari jarraituz, bermatu egingo da trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izango dela. Aipaturiko epaimahaia literatura edota irakaskuntzan nor diren euskal kulturaren munduko bost kidek eta Hezkuntza Sailburuordetzako bi lagunek osatuko dute.

12.- Idazlan onenak aukeratzeko, ondoko irizpideak izango ditu kontuan epaimahaiak:

- Idazlanaren arintasuna eta lotura.
- Hizkuntzaren erabilera zuzena eta aberastasuna.
- Sorkuntza eta irudimena.
- Testuaren ezaugarri literarioak (irudi literarioen erabilera).

13.- Epaimahaiak lanik onenak zein diren erabaki eta hilabeteko epean bikaintasun-aipamen hori merezi dutenei berariaz jakinaraziko zaie, irabazle izan direla.

14.- Epaimahaiaren ustez, aurkeztutako lanek gutxieneko mailarik ez balute, sariak eman gabe utzi ahal izango dira. Hala gertatzen bada, kategoria edo arlo batean eman gabe utzitako sariak beste kategoria edo arlo bati esleitzea erabaki dezake epaimahaiak, beste arlo horretan saria merezi duten bost lan baino gehiago baldin badaude.